

Jaialdia
Poltsiko
Antzerkia

2024



Jaialdia POLTSIKO ANTZERKIA

2024ko maiatzaren 2tik 19ra egin zen **Poltsiko Antzerkia Jaialdiaren 33. edizioa**, Donostiako kultura-hitzordurik garrantzitsuenetakoa dela berresteko balio izan zuena. Oraingo honetan, **2.640 lagun** joan ziren hiriko 25 espazio ezberdinetan eskainitako **32 emanaldiez** goatzera, jaialdi honen izaera berezi eta hurbilekoa sendotuz.

2024ko egitarauaren ezaugarririk nabarmenena bere aniztasuna izan zen, gaiei eta alderdi artistikoari dagokienez, antzerki, umore, magia, mentalismo, kabaret, monologo eta musika proposamenekin. Gainera, bost produkzio berri estreinatu ziren, **Antzerkia Euskaraz Sortzeko Proiektuen XIV. Deialdiko** irabazle izan zen muntaia, **Promesa berdín egin diegu lagun guztiei**, **F Taldearena**, eta **Famiglia** obra finalista, **Maidier Díaz** eta **Xabin Fernández** sortzaileena.

Estreinaldi horiek euskarazko eskaintza aberastu zuten, eta jaialdiak sorkuntza berriak sustatzearekin

duen konpromisoa erakutsi zuten. Hizkuntza- eta genero- parekidetasuna izan zen jaialdiaren oinarrietako bat 2024an ere. Eskaini ziren 32 emanaldietatik, 16 izan ziren euskaraz, eta beste hainbeste gazteleraz. Parte hartu zuten konpainiei dagokienez, orekatua izan zen emakumeen, gizonen eta talde mistoen ordezkaritza, era horretan, espazio inklusibo eta anitza dela berretsiz.



Famiglia, Maidier Díaz & Xabin Fernández © Iñaki Rubio



Promesa berdina egin diegu lagun guztiei, F Taldea
© Iñaki Rubio



Fiesta, The Chanclettes © Iñaki Rubio

Jaialdiaren alderdirik bereizgarrietako bat da eszenatoki ez oso konbentzionalak hautatzen direla, hala nola tabernak eta publikoarengandik hurbileko beste lokal batzuk. Ikuspegi horrek, esperientzia intimo eta berezia sustatzeaz gain, aukera ematen die herritarrei haien hiria ikuspegi kultural batetik deskubritzeko. 2024an, Convent Garden aretoan egin zen **amaierako jai**, **The Chanclettes & La Mega Pubilla** taldearen ikuskizun gogoangarri batekin, eta **Andoni Mutiloaren Gora Poltsiko Antzerkia!** kabaretaren estreinaldiarekin.

2024ko egitarauaren helburua izan da harritzea eta berritzea, gaurkotasuneko gaiak ikuspegi fresko eta probokatzaileetatik arakutzen dituzten **Ainhoa Aierbe** eta **Teresa Andonegiren Desorduetan** eta **Beatriz Egizabalen Magma Mia** ikuskizunekin, besteak beste. Halaber, sutsua izan zen publikoaren parte-hartzea; horrela, frogatuta geratu zen publiko leiala duela ekimenak, urtez urte Donostiako kulturaren klasiko bihurtu den hitzordu honetara hutsik egiten ez duena.



Desorduetan, Ainhoa Aierbe & Tessa Andonegi © Iñaki Rubio

Parte hartu zuten konpainiek eskertu egin zuten Donostia Kulturaren babesa, formatu txikiko antzerkiaren aldeko apustua egiten jarraitzen duelako; publikoari ere eskerrak eman zizkioten, ikuskizun guztietan erantzun baitzuen berotasunez eta konpromisoz. Elkarrenganako babes hori funtsezkoa izan da edizio honek arrakasta izan zezan eta, horrela, argi gelditu da jaialdi hau ezinbesteko espazioa dela arte eszenikoa sustatzeko eta hartaz gozatzeko.

2024ko edizioan, tradizioaren eta berritasunaren arteko oreka perfektua lortu zen. Finkatutako proposamen artistikoei lekua egiteaz gain, formatu, ideia eta talentu berriei ere ireki zizkien ateak jaialdiak, Poltsiko Antzerkiak esperimentazio kulturalerako plataforma bizi eta dinamikoa izaten jarraitzen duela erakutsiz.

Euskarazko antzerki-sorkuntzaren arloan ere inpaktu berezia izan zuen Poltsiko Antzerki Jaialdiak, **Udaleko Euskara Zerbitzuarekin** eta

Euskal Herriko Antzerkizale Elkartarekin duen lankidetzari esker. Baterako esfortzu horrek, euskarazko eskaintza aberatsa bermatzeaz gain, tokiko antzerki-produkzioa eta hizkuntza eszeniko berrien garapena ere sustatzen ditu.

2.700 lagun joan dira aurten emanaldietara; horrek agerian uzten du Poltsiko Antzerkiak Donostiako kultura-programazioan duen errotzea. Ekimen hau jaialdi bat baino zerbait gehiago da; artisten eta publikoaren arteko topagunea da, sormenerako erakusleihoa, eta hiri osoan eragina duen kultura-dinamizazioko motorra.

Edizio honek izan duen arrakastak erakusten du formatu txikiko antzerkiak leku pribilegiatua duela donostiarren bihotzetan. Poltsiko Antzerkiak aurrera jarraitzen du bere bilakaerarekin, etorkizunera bere sustraiak ahaztu gabe begiratu, eta arte eszeniko eskuragarri, hurbileko eta berritzailea sustatzearekin duen konpromisoa berretsiz.



Duzhe Gaizki, Amahiru © Iñaki Rubio



Material, Teatro de los Chinos © Iñaki Rubio